

Irakurgaiak partekatzen



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Errespetua eta
inklusioa



Herritarren partaidetza
eta enplegua



Gizarte eta osasun
zerbitzuak

Irakurgaiak partekatzen

Proiektu hau Gasteizko hiru auzotan gauzatzen ari den Piztu zure auzoa programaren ekimen berri gisa sortu zen. Hiru auzoetako talde eragileak handituz doaz etengabe batzen zaizkien pertsona berriei esker.

Hitza zabaltzeko eta adinekoak beren etxeetatik ateratzera animatzeko lana emaitzak ematen ari da. Adinekoek beren ingurunearen lagunkoitasuna hobetzeko ekintzekin bat egiten dute: saltoki lagunkoia identifikatzea, irisgarritasuna, programa hedatzea, ikastetxeetan ikusaraztea eta abar.

Une honetan, beraiek ari dira beste pertsona batzuk bilatzen eta haiei harrera egiten. Helburua da pertsonak harremanetan jartzea. Topaketek zentzua izatea bilatzen da, ekintzek eragina izatea gizartearen, ekarpen esanguratsua egitea, ez daitezela denbora pasa hutsa izan.

Pertsonok interdependenteak gara. Bizitzako une jakin batzuetan laguntza behar izaten dugu, baina beste une batzuetan, berriz, laguntza hori eskaintzeko moduan egoten gara.

Belaunaldi desberdinen arteko topaketa egokia eta erabilgarria izan daitekeela sinetsita, beste pertsona batzuei lagunduko dieten ekintzak egiten hasteko ideia sortu zen. Ekintza horiek taldean egingo lirateke, beharrezko laguntza eta motibazioekin. 2018an, irakurzaletasuna bultzatzeko belaunaldien arteko eta kulturen arteko «irakurgaiak partekatzen» proiektua zehaztu zen.

Harremanetan jartzen dira identitate kultural espezifikoak dituzten pertsonak eta taldeak, eta kulturen arteko elkarrikeria, integrazioa eta bizikidetzaren aberastua bultzatzen dira.

Proiektuaren abiapuntua ikasleengan alderdi hauek indartzeko premia da:

- Gaztelaniaz irakurtzeko eta idazteko gaitasuna, emaitza akademikoak hobetzeko bide gisa.
- Osagai emozionala duten harreman positiboak eta komunitatearekiko lotura sendotzea.
- Adinekoen buruz dauden estereotipo negatiboak lantzea.

Adinekoentzat sortzailetasun esperientzia bat da, eta, gainera, haurrekiko lotura afektiboen onurak era jasotzen dituzte.

Oraingo honetan, lehen hezkuntzako 6. mailako haurrek eta adinekoek elkarri eragin diote ikasturtean zehar.

Figura profesionalen zeregina da behar bezala posizionatzen jakitea, helburu sortzailea eta ikastekoa duen topaketa gauzatu ahal izan dadin. Askok izan dira ekimen honen alderdi positiboak.

Prozesua

2018ko otsailetik 2019ko otsailera bitartean, 6 topaketa egin ziren adineko pertsonen eta haurren artean. Topaketa horietan, batez ere, lagunkoitasuna landu zen hainbat ikuspegitik: inguruneak (establezimenduak, baliabideak eta bide publikoa), pertsona bakoitzak duen zeregina auzoak giza mailan lagunkoia izan daitezen... Saio batzuk ludikoak izan ziren eta jolasak egin ziren, baita ezagutzeko, estereotipoak berrikusteko eta parte hartzeko dinamikak ere. Topaketa horiek bi kolektiboen arteko hurbilketa, ezagutza eta afektua ahalbidetu zuten.

Topaketetan izandako sintonia ikusita, adinekoen talde eragilean lankidetzat antolatzekeo ideia sortzen hasi zen.

2019ko urtariletik otsailera bitartean, «irakurgaiak partekatzen» proiektuaren esparru proiektua landu zen. Ekimena inplikaturako eragileei azaldu zitzaion (Ikastetxea, Piztu zure auzoa ekimeneko talde eragileak eta Kokuk), eta guztien artean alde onak eta txarrak eta bakoitzaren rola aztertu zuten eta dokumentu adostu batera iritsi ziren.

Martxoan izan zen lehen topaketa. Ordutik aurrera, astean behin bildu dira, eskola orduetan eta haurren ohiko gelan. Guztira 9 saio egin dira, eta azken balorazio saio batean gaur egun belaunaldien arteko harremanari buruzko doktore tesia egiten ari den EHUKo Gizarte Hezkuntzako irakasle batek hartu zuen parte.

1. Erakunde sustatzaileak

- Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila.
- Sirimiri Servicios Socioculturales.
- Gasteizko Santa Maria HLHIko zuzendaritza, irakasleak eta ikasleak.
- Kokuk gizarte eta hezkuntza arloko esku hartze elkarteak.
- EHU (belaunaldien arteko harremanei buruzko tesia).

2. Erakunde mota

Publikoa eta pribatua

3. Xede taldea

Piztu zure auzoa programaren talde eragilea, Gasteizko Santa Maria ikastetxeko lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleak, bi eremuetako profesionalak eta Gasteizko komunitatea, oro har.

Adinekoak.

4. Lurralde eremua

Gasteiz (Araba)

5. Egoera

Abian jarrita

6. Etiketak

Parte hartzea, belaunaldien artekoa, kultura, Araba

7. Helburuak

Komunitatearentzat:

- Harremanetan dauden kolektiboek estereotipo sozialak gainditzea esperientzia emozional esanguratsuen bidez (adinkerari, gazteen irudi sozialari, kultura aniztasunari eta abarri buruzko estereotipoak).
- Auzoko harreman ingurunearen lagunkoitasuna bultzatzea.
- Gazteengan komunitate bateko kide izatearen sentimendua indartzea eta loturak eskaintzea, haurrek eta adinekoek partekatzen dituzten balioetan oinarritutako gizarte harreman egokien bidez.

Ikasleentzat:

- Osagai emozionaleko harreman positiboak izatea eta komunitatearekiko lotura sendotzea, deserrotze kulturala saihesteko.
- Gazteen errendimendu akademikoa hobetzea, idazketa eta irakurketa indartuz, irakurmena hobetzeko eta hiztegia zabaltzeko.
- Ikasleei gozatzeko eta arrakastazko esperientziak eskaintzea, berez emaitzekin zorrotza den ikastetxearen ingurunean.

Adinekoentzat:

- Sortzailetasun esperientzia bat erraztea eta bizitzea, eta, horrez gain, haurrekiko lotura afektiboaz gozatzea.
- Identitate kultural espezifikoak dituzten pertsonak eta taldeak harremanetan jartzea, kulturen arteko elkarrikeria, integrazioa eta bizikidetzaren aberastua bultzatzeko.
- Proiektuan parte hartzen duten adinekoak bizitzari zentzua ematen dion eta poztasuna dakarren ekimen baten protagonista bihurtzeko.

Helburuetan aurreikusita ez zeuden emaitzak izan dira, topaketak antolatu izanaren eta bertan eraikitako harremanaren ondorioz: irakurzaletasuna, harreman afektiboak, entzuteko ohiturak eta errespetua eta abar.

8. Metodologia

Prozesuan urrats bakoitzak hurrengo maila finkatzeko balio izan du. Berez, proiektua eraikitzeo ideia bat izan da eta alderdi guztien etengabeko onespina eta gogo bizia eskatzen zuen, batez ere adinekoena eta haurrena.

Metodologiari dagokionez, profesionalek (animatzaile, irakasle eta begiraleek) gizarte harreman positiboak ahalbidetzeko eta errazteko rola hartu dute. Parte hartzaileen gaitasunak ikusarazten dituzte eta zailtasun kognitiboak edo ingurumenekoak gutxitzen.

Elkarrekintzetan balio batzuk eta jokoaren arau batzuk adostea eta afektuzko eta konfiantzazko harremanak sortzen uzteak proiektuaren alderik teknikoenean (irakurzaletasuna) aurrera egiteko giro egokia sortzea ekarri dute.

Eskola umeen hasierako egoera ikasteko eta garapen pertsonalerako ingurunea da, begiraleen (Kokuk) eta irakasleen laguntza dutela. Adinekoei dagokienez, zaharrentzako gizarte eta kultura zentroetatik bultzatzen den zahartze aktiborako programa da, eta, zehazkiago, «Piztu zure auzoa» programa.

Saio baten egitura:

- Agurra, harrera, ikasgelatan banatzea eta testuak banatzea (10 minutu). Saioaren garapena: binakako irakurketa (adinekoa eta haurra) edo talde txikitik (adinekoa eta bizpahiru haur) irakurtzea (20 minutu). Hitzekin loturiko zalantzak argitzen dira. Hitzek esanahiak hiztegiaren bilatzen dira. Irakurritakoari buruz galdetzen da (irakurmena).
- Haur guztiak gela nagusian biltzen dira berriz (5 minutu).
- Bateratzea: irakurmena, termino berriak, etxerako lana (20 minutu).
- Agur esateko errituala (5 minutu).

Testuak

- Ikastetxeko irakasleek aukeratu dituzte.
- Eztabaida eta gogoeta bateratua sortzeko helburuarekin aukeratu dira.
- Irakurketak hiztegia eta irakurmena lantzeko aukera eman du.
- Enpatia, konpromisoa eta errespetua bezalako kontzeptuek emozioak ere lantzea ahalbidetu dute. Horri esker, frustrazio edo bakardade sentimenduak azaleratu dira.

Saio guztietako kontsignak, arlo teknikoan ahalegintzeaz gain, hau da, irakurmena hobetzeaz gain, honako hauek ziren:

- Ondo pasatzea (alderdi ludikoa eta emozionala lantzea).
- Desberdintasunaren balioa aintzatestea eta batzuetan ekitatea (bai hurrei bai adinekoei) zailtzen duela onartzea.
- Enpatia eta erresilientzia (kolektibo bakoitzak bere kabuz hausnartzen du: kolektiboen estereotipoak haustea eta norberaren eta bestearen gaitasunekiko konfiantza hobetzea).
- Zaila dena erraz egitea.

- Erritmoak errespetatzea.
- Figura profesionalek distantzia jakin batetik dinamizatzen dituzte saioak, harremana eta emozioa kanpora ateratzen utzita eta bikote bakoitzak lana bere erritmoan egin dezan ahalbidetuta.

* Inplikaturako eragileen aniztasuna gorabehera, prozesuaren garrantzian zentratzea ahalbidetuko zuten kudeaketak sinplifikatu dira, eraginkortasunean, erabakiak arin hartzean eta erritmoekiko errespetuan oinarritutako metodologia batekin. Ideiari buruzko xehetasunak jasotzen zituen eta hura testuinguruan jartzea eta indartzea ahalbidetu duen abiapuntuko proiektu bat izan arren, prozesuak markatu ditu erritmoak, baita edukietako batzuk ere.

Esperientzia baloratzen da, eta lortutako emaitza onen ondoren, jarraipena ematea erabakitzen da. Adineko pertsonen taldeak «irakurgaiak partekatzen» proiektuan laguntzen jarraitu nahi du. Esku hartzea eraginkorragoa izan dadin, hainbat urtez jarraian egitea proposatzen da.

Ikasturte honetan, 2019-2020 ikasturtean, ikastetxe bereko Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle talde batekin hasi da. Proposamena da proiektuari hiru urtez jarraian eustea ikasle berekin, Lehen Hezkuntzako 4. mailatik 6. mailara. Horrela, esperientziak ikasleengan eta adinekoengan dituen eraginak eta emaitzak zehatzago aztertu ahal izango dira.

9. Alderdi berritzaileak

- Adineko pertsonen asmoa, hau da, beraientzako jarduerak egite hutsa gainditzea eta beste urrats bat ematea eta ekintza berriak egitea, harremanak izateko eta beste pertsona batzuei laguntzeko asmo argiarekin.
- Egitura sendoa eta eragileek partekatua: praktikak garatzeko oinarritzko dokumentua (proiektua) izango den idatzizko hitzarmen bat izatea. Lehen zirriborrotik saiatu gara proiektuak interes handia izan dezan inplikaturako alderdien benetako egoerak hobetzeko. Ahalegina alderdien konpromisoan oinarritu zen (zer egin eta zertarako, zein epetan eta abar).
- Ikasleekin eta adinekoekin egiten diren saioen metodologia antolatua (denborak, jokoaren arauak, asmoa eta abar), eta, aldi berean, arina, familiarra, irekia eta malgua.
- Topaketen garapena eskola eremuan, hezkuntza testuinguruan.
- Osagai emozional positiboa praktikaren bultzatzaile gisa (ezagutzeko eta hurbiltzeko saioak, borondatezotasuna, arau argiak eta giro lasaia).
- Pilotajea: talde prozesu sendo batetik abiatuta, esperientzia pilotu bat abiaraztea anbizioz eta gogoz, baina batez ere umiltasunez (polita izango litzateke hau egitea..., ausartu gaitezen zer gertatzen den ikustera). Adinekoen eta haurren arteko lehen harremanen erantzuna funtsezkoa izan zen loturak sortzeko.

- Adineko pertsonen proiektuaren fase guztietan parte hartzea, kontuan hartuta batez besteko adina oso altua dela eta nolabaiteko ahulezia fisiko eta sozialeko egoeran direla, baina hurrekiko harremanekiko konpromiso eta nahi handia dutela.
- Harremanen erraztasunak eta noranzko bikotasunak proiektuaren alderik akademikoenari heltzeko oinarri gisa balio izan dute (irakurtzeko gaitasuna hobetzea —arintasuna eta ulermena + motibazioa—); hori, printzipioz, ez da batere erakargarria haurrentzat, eta erronka handia da adinekoentzat.
- Inplikaturako profesionalen eginkizun erronkaria eta, aldi berean, erraztailea, eta piztutako konfiantza (berdinen artean, desberdinen artean eta bakoitzarengan beren buruarekiko, baita keinu txikiekin gauzak hobetzeko gaitasunarekiko ere).

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Saio bakoitzaren ondoren, balorazio txiki bat egin da. Proiektu honen garapenean zehar, balorazio horiei esker, aldaketa batzuk ezarri dira horien garapena hobetzeko. Proposatutako aldaketen artean, irakurri beharreko testu mota zehaztu zen. Era berean, ikasleek testua ozen irakurtzen duten saio bakoitzaren lehen zatian parte hartzaile guztiak areto gehiagotan banatzea erabaki zen; izan ere, zurrumurruak zaildu egiten zuen adinekoen eta txikien arteko elkarriketa.

Gainera, inplikaturako agente formalak programaren martxari eta beren erreferentziatzko kolektiboetan izandako eraginei buruzko informazioa jasotzen joan dira.

Elementu kuantitatiboak (parte hartzaileen kopurua, bestekiko topaketa kopurua) kualitatibo eta behaketakoekin (pertzepzioa, balorazioa, taldearen interakzio maila, onura pertsonalak, irakurketagatiko interesa, sentimenduen adierazpena eta abar) konbinatzen dira.

Bertaratzeari buruzko datuak: saio bakoitzera 11 adineko eta 23 haur joan dira, batez beste.

Balorazio kualitatiboa

Ikasleei dagokienez:

- Azpimarratu dute esperientzia horri esker enpatia eta errespetua landu ahal izan direla, baita emozioak ere.
- Ikasle batzuek diote orain gogo handiagoz irakurtzen dutela.
- Esperientziaren iraupena laburra denez eta maila bereko beste gelarik ez dagoenez, ezin izan da baieztatu irakurmena hobetu duten ala ez. Aldiz, hiztegia hobetu dutela nabarmendu dute.
- Saioetan portaera bikaina izan dute. Ikastetxetik nabarmendu dutenez, bai ikasgelan, bai beste jardura batzuetan, haien portaera askoz ere okerragoa da.

Adinekoei dagokienez:

- Parte hartzaile guztiek nabarmendu dute oso pozik daudela esperientziarekin.
- Hasieran ez zuten uste hurrei laguntzeko gai zirenik, baina baietz ikusi dute. Ahaldundu egin dira, eta Piztu zure auzoa ekimenean parte hartzen duten gainerako pertsonen jakinarazi diete guztiak gai direla jarduera horietan parte hartzeko.
- Maila emozionalean, egiaztatu da saio bakoitzean ilusio handiz joaten direla eta oso pozik ateratzen direla beren denbora ikasleekin partekatu ondoren.
- Bi belaunaldien artean sortutako loturak nabarmentzen dira, ikasgelatik haratago iritsi baitira. Ustekabeko topaketak ere izan dira kalean (familiakoak agurtu, haiekin hitz egin, aurkeztu...).
- Jarduera gomendatzen dute eta jarraitzea gustatuko litzaieke.
- Adineko pertsonen inguruan dugun irudia hobetzen du: baliozkoak, gai direnak, ezagutza eta esperientzia transmititzen dutenak. Estereotipoen aurre egiteko estrategia eraginkorra da.

Testigantzak:

- Errepikatu egin behar dugu. Asko gozatu dut.
- Haurtzarora itzuli gara.
- Primeran egon da.
- Oso maitagarriak dira.
- Barre asko egin dut.
- Zertara jolasten garen erakutsi behar diegu.

Ikasturte honetan aurrera egin da helburuetan: beren lanarekin pozik dauden pertsonak, irakurtzeko ohitura aldaketak, lotura afektiboak, errespetuaren praktika eta bi kolektiboen estereotipoak baztertzea. Hasi besterik ez gara egin, horrela indartzen dira komunitateak eta auzoak. Esperientzia txiki horiek elurrezko bola efektua eragiten dute, eta hedabideek maiz azpimarratzen duten irudi sozial gutxiesgarria indargabetzen dute.